

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GAUBEAKO UDALA

#### **Behin-betiko onartzea herri barruan eta herri artean bidaiariak turismo automobiletan garraiatzeko zerbitzua (taxia) arautzen duen ordenantza**

Ez da erreklamaziorik aurkeztu ordenantza honi hasierako onarpena eman zion udalbatzaren erabakiaren kontra (Gaubean herri barruan eta herri artean bidaiariak turismo automobiletan garraiatzeko zerbitzua, alegia, taxis, arautzen duen ordenantza), eta, beraz, bat etorriz 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoarekin (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea), behin betiko bihurtzen da erabaki hori, eta haren ordenantzaren testu osoa ematen da hemen argitara, guztiek jakin dezaten, 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzearren:

#### **1. artikulua. Lege oinarria eta xedea**

Ordenantza hau emateko hauek hartu dira kontuan: 7/1985 Legeak 25.2. II) artikuluan xedatutakoa (apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena); 2/2000 Legea, (ekainaren 29koa, bidaiarien herri barruko eta herri arteko garraio publiko turismo automobilaren bidezkoa arautzen duena) eta 243/2002 Dekretua (urriaren 15ekoa, bidaiarien herri barruko eta herri arteko garraio publiko turismo automobilaren bidezkoaren legearen erregelamendua onartzen duena).

Ordenantzaren xedea da Gaubeako udalerrirako (Araba) arautzea turismo ibilgailuen bidez bidaiariak (gehienez ere, gidaria zenbatuta, bederatzi bidaiari edo gutxiago) herri barruan eta herri artean garraiatzeko zerbitzu publikoa.

#### **2. artikulua. Definizioa**

Ordenantza honen ondorioetarako definizio hauek hartu behar dira kontuan:

1. Taxi zerbitzua: gidaria zenbatuta guztira bederatzi pertsona edo gutxiago eraman ditzaketen turismo ibilgailuen bidez bidaiariak garraiatzeko garraio publikoa da.

2. Herri garraioa: oso-osorik Gaubeako udalerrian gauzatzen dena.

3. Herri arteko garraioa: aurreko puntuan sartzen ez direnak.

4. Turismo ibilgailuak: motozikletez besteko ibilgailu automobilak, pertsonak garraiatzeko pentsatu eta sortuak, guztira, gidaria zenbatuta, bederatzi lagun edo gutxiagorentzako lekua dutenak.

5. Baterako zerbitzuko lurralde eremua: kuadrillarekin bat dator. Horrek zera esan nahi du: behar bezala baimenduta dagoen ibilgailuak eskubidea izango du eremu horren barruan bidaiariak turismo automobiletan garraiatzeko edozein zerbitzu publiko egiteko, kontuan hartu gabe ibilgailuaren egoitza zein udalerritan dagoen.

#### I. kapitulua. Lizentziak eta baimenak

#### **3. artikulua. Garraio lizentzia eta baimena**

Turismo ibilgailuen udal lizentzia da herri barruko garraioa egiteko gaitzen duen titulua, eta Arabako Foru Aldundiaren baimena, aldiz, herri arteko garraioa egiteko gaitzen duena, Añanako Kuadrilla hartuz Taxiaren Baterako Zerbitzuko lurralde eremu gisa, 79/2008 Dekretuaren arabera.

Herri arteko zerbitzuak honakoek soilik eman ahalko dituzte: udal lizentzia eta Arabako Foru Aldundiak emandako garraio baimena duten titularrek.

Bai herri barruko garraioko lizentziak bai herri arteko garraioko baimenak Gaubeako udalean eskatu behar dira; gero, udalak Arabako Foru Aldundira bidaliko ditu herri arteko garraioko baimena emateko diren eskaerak.

Lizentzia eta baimen bakoitzak titular bakarra izango du, gidari bakarra, eta ibilgailu bakarra eta zehatza hartuko du; hau da, pertsona bera ezin da izan lizentzia edo baimen bat baino gehiagoren titularra.

Lizentziak eta baimenak mugagabeak izango dira, baina epea ezar dakieke, organo eskudunek haiek emate edo kentze aldera egiten dituzten ikuskapenen emaitzen arabera.

#### **4. artikulua. Lizentzia kopurua**

Garraio eta Herrilan sailburuaren 2005eko otsailaren 11ko Aginduak (Euskal Autonomia Erkidegoan automobiletan egiten den bidaiarien herri arteko garraio publikorako gehienezko baimen kopurua ezartzeari buruzkoa) 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Gaubea 10.000 biztanletik beherako udalerria denez, gehienez ere lizentzia bat eman daiteke udalerrri honetan.

#### **5. artikulua. Lizentziak eskualdatzea**

Lizentziak eta baimenak ezin izango dira eskualdatu, kasu hauetan izan ezik:

a) Titularra hiltzen denean, alargunaren edo oinordeko legitimoaren alde.

b) Erretiroa hartzean.

c) Gaixotasuna, istripua edo ezinbestekotzat jo daitekeen beste kausaren bat dela-eta titularra lanbiderako betiko ezindua geratu denean.

d) Lizentziaren titularrak hamar urtetik gorako antzinatasuna duen lizentzia duenean, aukeran izango du hura eskualdatzea, aldezturik Udalak baimenduta, eta titularrak ezin izango du lizentzia berririk eduki, udalerrri honetan, 10 urte igaro arte.

#### **6. artikulua. Lizentziak ematea**

Jendeari zerbitzua emateko dagoen beharizanaren eta egokitasunaren arabera emango dira lizentziak.

Beharizan eta egokitasun horiek zehazteko honako hauek aztertuko dira:

- Zerbitzuaren kalitatea eta hedadura, lizentzia berriak eman baino lehen.

- Udalerrriaren hazkunde mota eta hedadura.

- Zerbitzu hobea eta zabalagoa emateko benetan dauden beharizanak.

- Emango diren lizentzia berriek garraioan eta zirkulazioan izango duten eragina.

#### **7. artikulua. Taxi lizentziaren eskatzaileak**

Honako betekizun hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek eskatu ahal izango dute taxi lizentzia:

- Pertsona fisikoa izatea. Ezingo zaio pertsona bat baino gehiagori batera lizentziarik eman.

- Beste lizentzia baten titularra ez izatea.

- Indarreko legeriak zergen arloan ezarritako betebeharrak betetzea.

- Indarreko legeriak lan, gizarte edo administrazio arloetan ezarritako betebeharrak betetzea.

- Lizentzia izango duen ibilgailuak ordenantza honetan ezarritako betekizunak bete behar ditu. Gainera, lizentzia eskatzen den unean ibilgailu horrek ezin izango du 2 urtetik gorako antzinatasuna izan lehenengo aldiz matrikulatu zenetik kontatzen hasita, matrikulatu zen herrialdea edozein izanda ere.

- Erantzukizun zibila estalita izatea, garraio zerbitzua ematean erabiltzaileei kalteak eragiten zaizkienerako. Legeria bereziaren arabera nahitaez ordaindu behar diren gainerako arriskuak hartzen dituen aseguruko poliza ere egin behar da.

#### **8. artikulua. Lizentzien iraupena, etetea, ezeztatzea eta azkentzea. Ibilgailuen ordezkapen edo aldaketa kasuak**

1. Udalak emandako taxi lizentziak mugagabeak izango dira, baina epea ezarri dakieke hura emate edo kentze aldera udalak egiten dituen ikuskapenen emaitzen arabera.

2. Ibilgailuak istripua edo matxura izan badu, lizentziaduna gaixorik badago edo zerbitzua ezin ematea eragin duen beste edozein egoera gertatu bada, udalak lizentziaren eraginkortasuna eten egingo du harik eta egoera horiek desagertu arte.

Zerbitzua ezin bada hiru hilabete baino denbora luzeagoan eman eta lanean ez egoteko arrazoa egiaztatzerik ez badago, udalak lizentzia ezeztatu ahal izango du; ez da horrelakorik gertatuko, alabaina, lizentziaren titularrak beste gidari bat kontratatzen badu aplikatu beharreko araudia betez. Horrelakoetan, 243/2002 Dekretuan ezarritakoa bete beharko da (urriaren 15ekoa, bidaiarien herri barruko eta herri arteko garraio publiko turismo automobilaren bidezkoaren legearen erregelamendua onartzen duena).

3. Lizentziak honako arrazoi hauengatik azkenduko dira:

a) Titularrak lizentziari uko egitea.

b) Lizentzia ezeztatzea.

c) Titularra hiltzea, salbu eta ordenantza honetan lizentziak eskualdatzeko ezarritako kasuren bat bada.

d) Lizentzia baliogabetzea.

4. Udalak ezeztatu egin dezake lizentzia 2/2000 Legean (ekainaren 29koa, bidaiarien herri barruko eta herri arteko garraio publiko turismo automobil bidezkoari buruzkoa) eta 243/2002 Dekretuan aurreikusitako kasuetan (urriaren 15ekoa, bidaiarien herri barruko eta herri arteko garraio publiko turismo automobil bidezkoaren legearen erregelamendua onartzen duena) aurreikusitako kasuetan: lizentziaren titularra izateko baldintzak ez betetzeagatik, aldiari aldiko ikuskapena egin gabe urtebete baino gehiago igarotzeagatik eta behin eta berriro oso arau hauste larriak egiteagatik edo ezarritako zehapena ez betetzeagatik.

Kasu horietan, ezeztatutako lizentziaren titularrak ezingo du beste bat eskatu ezeztatzea gertatzen denetik 10 urte igaro arte.

Ibilgailuak ordezkatzeko kasuak:

Udal lizentzia edo Foru Aldundiaren baimena dute ibilgailuak ordezkatu egin daitezke beste batzuekin, baldin eta administrazio emailek baimena ematen badute. Horrelakoetan, ordezkotako ibilgailuak 2 urtetik beherako antzintasuna izan behar du lehenengo aldiz matrikulatu zenetik.

Ibilgailuen ezaugarrien aldaketa kasuak:

Aldaketek ibilgailuaren baimendutako gehienezko pisuari, zama edukierari, plaza kopuruari edo beste ezaugarri batzuei eraginez gero, lizentziak edo baimenak indarrean jarraitzeko baimena eman beharko da.

#### II. kapitulua. Zerbitzua emateko baldintzak

#### **9. artikulua. Lizentzia ustiatzea**

Lizentziaren titularrak berak gauzatu beharko du jarduera. Hala ere, Gaubea 5.000 biztanletik beherako udalerria denez, EZ du zertan dedikazio osoz eta eskusiboz gauzatu, halaxe xedatzen baitu 243/2002 EDren 37. artikulua.

Salbuespenezko egoeretan (lanerako aldi baterako ezintasuna edo zerbitzua norberak ematea galarazten duen bestelako edozein egoera, behar bezala egiaztatua) soldatapeko gidaria kontratatuz ustiatu ahal izango da lizentzia. Nolanahi ere, lizentzia bakoitzak gidari bakarra eduki ahal izango du atxikia.

Ezin du inola ere soldatapeko batek zerbitzua eman titularra erretirata edo hilda badago edo ezintasun iraunkorra aitortuta badu.

Soldatapeko gidariak jarduera hasi baino lehen egiaztatu behar dute udalean lizentziaren titularrak kontratatu egin dituela eta dagokion Gizarte Segurantzako Langileen Araubidean sartuta daudela lanaldi partzialean.

#### **10. artikulua. Zerbitzuak ematea**

Lizentzia eskuratzen duten pertsonak gehienez ere 60 egun izango dituzte zerbitzua ematen hasteko, lizentzia eman zaiela jakinarazten den egunetik zenbatuta.

Betebehar hori bete ezin bada, titularrak Alkatetza honetan egiaztatu beharko ditu zergatikoak, eta idatziz eskatu bigarren epe bat emateko. Udalak luzapen bakarra baimendu ahalko du, gehienez ere 60 egunekoa.

#### **11. artikulua. Zerbitzuak emateko baldintzak**

Honela kontratatu ahalko da auto-taxi zerbitzua:

-Taxia martxan dela, erabiltzaileak keinu bat egin diezaioke gidariari bide publikoan, eta gidariak eskaera egin den tokitik hurbilen dagoen lekuan gelditu beharko du.

-Taxian sartuta, udalak baimendutako geralekuren batean dagoenean.

-Telefono bidez hitzartu daiteke. Zerbitzua eskaera egin den unean bertan edo espresuki adostutako beste edozein unetan gauzatuko da.

Oro har, garraio zerbitzuak ematean ibilgailuaren edukiera osoa kontratatuko da, pertsonak eta haien fardelak eramateko.

Garraiolariak ezin izango du lizentzian baimendutako plaza kopurua baino bidaiari gehiago eraman.

Udalerriko biztanleen egoera kontuan hartuta, eta betiere bidaiarien garraio zerbitzuari kalterik eragiten ez bazaio, mandatuak eraman ahalko dira erabiltzaileak espresuki hala eskatzen badu. Kontratatzailerak bakarrak eska dezake mandatuak eramatea; hauek jatorri eta helburu bakarra izan behar dute. Ezin dira aldi berean eraman bidaiariak eta mandatuak. Mandatuak eramatean, turismo ibilgailuen bidez herri barruan edo herri artean bidaiariak garraiatzeko zerbitzuetan ezarritako tarifak aplikatuko dira.

Taxi geralekua Uribarri Gaubeako udaletxearen aparkalekuan dago, baina udalak badu hura aldatzea, egoki eta komenigarri irizten badio.

### III. kapitulua. Gidariak

#### **12. artikulua. Lanaldia**

Gaubeako Udalak sektoreko profesionalen elkarteei entzunaldia eskainiko die, urteko zerbitzuen egutegi bat proposa dezaten, zerbitzu eta atsedeen egunak eta ordutegiak zehaztuta.

Lizentziaren titularrek aldaketaren bat egin nahi izanez gero onartutako egutegian, baimena eskatu beharko dute gutxienez 10 egun lehenago.

#### **13. artikulua. Gidarien betebeharrak**

1. Gidariak bide zuzenena hartu beharko dute bidaiariak esandako helburura heltzeko, kontraktorik esan ezean.

2. Gidariak ezin izango diote uko egin zuzenean edo telefonoz eskatu zaien zerbitzu bati, salbu eta bidezko arrazoirik ezean. Bidezko arrazoiak daudela esateko, hauetako egoeraren batean egon behar da:

- Polizia segika duen pertsona batek eskatzea zerbitzua.
- Zerbitzua onartuz gero ibilgailuak baimenduta duen gehieneko bidaiari kopurua gainditu behar izatea.
- Bidaiariren bat nabarmen mozkortuta edo sorgogarriekin intoxikatuta egotea; bidaiariaren bizia arrisku larrian edo berehalako arriskuan dagoenean, aldiz, eraman egin behar da.
- Zerbitzua bide ibilgaitzetan zehar egin behar denean, baldin eta horrek arrisku larrian jar badezake gidariaren, erabiltzaileen edo ibilgailuaren segurtasuna.
- Zerbitzua eskatzen duenak edo harekin doazenek, edo aldean daramatzaten fardelek, beren ezaugarriengatik, ibilgailuaren barrua zikindu edo honda lezaketenean.

3. Gidariak hurrengo agiriak eraman behar dituzte zerbitzua ematen duten bitartean:

- Lizentzia eta, hala dagokionean, Arabako Foru Aldundiak emandako baimena bidaiarien herri arteko garraio publikorako.
- Udalerriko plano eta gida eguneratuak, gida turistikoa, eta ospitaleen, osasun zentroen, polizia etxeen, suhiltzaileen eta larrialdi zerbitzuen helbideak.
- Ordainagiri eta fakturen txeketegia.
- Tarifaren informazioa begi bistan.
- Aseguru poliza eta ordainagiria.
- Indarrean dagoen araudia: herri barruko eta herri arteko garraio publikoaren legea eta haren erregelamendua, bai eta Gaubeako udal ordenantza ere.
- Taximetroaren metrologia kontrolaren orria eta azken IATren ziurtagiria.
- Taximetroaren egiaztapenaren indarraldiaren etiketa, begi bistan.
- Erreklamazio orriak, kalkoa duten 3 kopia dituztenak.

4. Gidariak ezinbestean eman behar dizkio bezeroari 50 euroko billeterainoko atzerakoak. Atzerakoak lortzeko ibilgailutik atera behar badu, taximetroa geratu egingo da, salbu eta emandako billetea 50 eurotik gorakoa bada. Horrelakoetan, taximetroak aurrera jarraitu ahal izango du, eta berdin jokatu da bezeroa bera irteten denean atzerakoak eskuratzen.

5. Gidariak zuzentasun osoz eta portaera onez eman behar du zerbitzua, eta bidaiariak daramatzan fardelak eta erabiltzaileak batera eta bestera joateko behar dituen aparatuak ibilgailuan sartu eta handik atera beharko ditu. Halaber, erabiltzaileei ibilgailuan sartu eta bertatik irteten lagunduko die, eta mugikortasun urriko pertsonen eta haurrekin doazenei segurtasun elementuak (segurtasun finkagailuak edota uhalak) jartzeko laguntza eskainiko die.

6. Itsu txakurrak eta edo desgatitasunen bat duten pertsonen laguntzarako bestelakoak eramateagatik ez da gehigarri ordainduko, eta, eramatekotan, berariazko araudia bete beharko da.

7. Ibilgailuko gidariak udal bulegoetara eraman behar ditu bidaiariak ibilgailuan ahaztuta utzi dituen objektuak, horiek aurkitu eta 72 orduko epearen barruan.

8. Erregaia ez da kargatuko zerbitzua eskaintzerakoan, bidaiariak berariazko baimena ematen ez badiu behintzat.

9. Erabiltzaileak ibilgailuan sartu eta bertatik irteteko, gidariak leku aproposetan geratu behar dute, hau da, pertsonen segurtasuna bermatuta dagoen lekuetan, betiere zirkulazioa oztopatu gabe eta ibilgailua salbu dela.

## IV. kapitulua. Ibilgailuak

**14. artikulua. Ibilgailuen edukiera**

Ibilgailua gehienez 9 pertsona eramateko adinakoa izango da, bidaiaria ere zenbatuta.

**15. artikulua. Ibilgailuen kolorea eta bereizgarriak**

Ibilgailuak SP bereizgarria izango du, alegia, plaka bana ibilgailuaren aurrealdean eta atzealdean, matrikula plaken alboan, eta Ibilgailuen Arautegi Orokorrean aurreikusitako baldintzak bete behar dituzte (2822/1998 ED, abenduaren 23koa).

Lizentziaren titularrak une bakoitzean indarrean dauden tarifak aplikatzeko taximetro bat eta modulu adierazlea jarriko ditu, ikusteko moduan, lizentzian adierazitako ibilgailuan.

Taximetroari dagokionez:

Gutxienez 4 tarifa aplikatu ahalko ditu, eta ordainagiriak luzatzeko terminala izan. Ibilgailu barruan kokatuta egongo da, aurrealdearen erdiko herenean, prezioaren irakurketa egin ahal izateko. Gainera, martxan dagoen bitartean argia ipinita izango du. Behin instalatuta, IAT gunean aztertu behar dute. Horrez gain, taximetroa konpondu edo aldatzen denean eta tarifa aldaketa dagoen bakoitzean ere gune horretara jo beharko da. Urtero egin beharko da azterketa.

Taximetroa martxan jarriko da erabiltzailea ibilgailuan sartu eta abiasaria edo horren ordeko elementu elektronikoa abiarazten denean. Zerbitzua telefono bidez edo aldez aurretik kontratatzen denean, jasotzeko lekuaren zonan sartzekoan jarriko da martxan, udalak ezarritako geralekua ez bada behintzat.

Moduluari dagokionez:

Ibilgailuaren sabaian jarriko da, aurreko aldean, eta taxia libre dagoen ala ez eta hautatuko tarifa zein den adieraziko dira. Libre dagoenean, argi berdearekin adieraziko da, eta, norbait daramanean, aplikatzen den tarifa adieraziko du. Lizentziaren zenbakia eta lizentzia eman duen udalaren izena agertuko dira. Honakoak ere agertuko dira: "taxi" hitza, fabrikatzailearen marka eta erabilera homologazioa edo baimena.

**16. artikulua. Ibilgailuen betekizunak**

Taxi zerbitzua ematen duten ibilgailuak homologatutako marka eta modeloetakoak izan behar dira, araudiak ezarritako betekizunak bete beharko dituzte, eta, batez ere, honako betekizun hauek:

- Gutxienez 4 ate izango dituzte.
- Gutxienez 330 litroko edukiera duen maletategia.
- Ez dute 2 urtetik gorako antzinatasuna izango lehengo matrikulaziotik kontatzen hasita.
- Karrozeria itxia eduki behar dute, eta erraz sartzeko moduko eta funtzionamendu errazeko ateak, indarra egitea eskatzen ez dutenak.
- Ibilgailuaren barrualdeko neurriak eta ezaugarriak zerbitzuak beharrezko dituen segurtasuna eta erosotasuna bermatzeko modukoak izan behar dira.
- Aurreko eta atzeko ateeetan, kanpoan zer dagoen ikusteko, argia sartzeko eta aireztatzeko moduko leihoak egon behar dira. Leiho horiek material gardena eta ezpaletan apurtuko ez dena izan behar dute; halaber, leihoak erabiltzaileek nahi bezala igo eta jaisteko mekanismoa izango dute.
- Ibilgailuaren barruan agiriak eta txanponak ikusteko argi elektriko nahikoa egon behar da.
- Su itzalgailuak eduki behar ditu, aplikatu beharreko indarreko legerian ezarritakoa betez.
- Berogailua eta aire girotua eduki behar ditu.

- Segurtasun pantaila izan dezake.
- Matxura ohikoenak konpontzeko tresnak eraman behar ditu.
- Ibilgailu egokituek mugikortasun urriko pertsonen autonomia eta erosotasuna bermatzeko mekanismoak izan beharko dituzte, bai ibilgailuan sartu eta irteteko bai bertan bidaiatzeko.
- Indarreko tarifak eta kilometro bakoitzari aplikagarri zaizkion gehigarriei buruzko informazioa erabiltzailearen bistan eramango dira, eta higie eta osasun baldintza perfektuetan zainduko dira.

#### **17. artikulua. Ibilgailuetako publizitatea**

Debekatuta dago ibilgailuaren barruan eta kanpoan publizitatea jartzea, lizentzia ematen duen organo eskudunak horretarako baimena eman ezean.

### V. Kapituluua. Tarifak

#### **18. artikulua. Tarifak**

Zerbitzuak ematerakoan horretarako ezarriko den tarifen araubidea aplikatuko da, zeina loteslea izango den bai lizentziaren titularrarentzat bai erabiltzaileentzat.

Auto-taxi zerbitzua tarifa pean emango da, eta tarifa hori urtero-urtero berrikusi eta ezarriko du agintaritzak eskudunak: herri barruko ibilbideetan, udalak ezarriko du eta herri arteko ibilbideetan, Eusko Jaurlaritzak, aldez aurretik foru aldundiei, udalei (EUDELen bitartez), sektoreko profesionaleri eta erabiltzaileei entzunaldia emanez.

Hala ere, tarifa baino prezio merkeagoak ere hitzartu daitezke herri arteko erabilera eskusiboko garraioetarako. Horrelakoetan, ez da betebeharririk izango taximetroa funtzionamenduan eramateko, baldin eta agiri batean idatzita jaso bada hitzartutako prezioa eta agiri hori ibilgailu barruan eramaten bada zerbitzua ematen den bitartean.

Ez da gehigarrik ordaindu beharko itsu txakurrak edo ezinduen laguntzarako bestelakoak eramateagatik. Horrez gain, lizentziaren titularrak ezingo die eskatu inolako gehigarrikerabiltzaileei, indarreko araudian aurreikusita ez badago edo udalaren baimenik ez badu.

### VI. kapituluua. Arau hausteak

#### **19. artikulua. Garraioa arau hausteak**

Garraioa arau hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Arau hauste hauek 2/2000 Legearen 26. artikuluan daude jasota (ekainaren 29koa, Bidaiarien herri barruko eta herri arteko garraio publiko turismo automobil bidezkoa).

#### **20. artikulua. Zenbatekoa**

Egindako kaltea haztatu ostean zehaztuko da zehapenen zenbatekoa, honako mugen barruan betiere:

- Zehapen arina: ohartarazpena egingo da edota 276,46 euro arteko isuna jarriko da, edota taxi titulua kenduko da, gehienez ere hamabost egunerako.
- Zehapen larriak: 276,47 eurotik 1.382,33 eurora bitarteko isuna jarriko da, edota taxi titulua kenduko da, gehienez sei hilabeterako.
- Zehapen oso larriak: 1.382,33 eurotik 2.764,66 eurora bitarteko isuna jarriko da, edota taxi titulua kenduko da, gehienez urtebeterako.
- Zehapen horiek gorabehera, behin eta berriz arau hauste oso larriak egiten badira edo jarritako zehapena betetzen ez bada, taxi titulua kendu ahal izango da.

**21. artikulua. Zehatzeko prozedura**

Zehatzeko prozedura ofizioz edo alderdiren batek eskatuta hasiko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (30/1992 Legea, azaroaren 26koa) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zehatzeko ahalari buruzko Legeak (2/1998 Legea, otsailaren 20koa) ezarritakoa betez. Toki erakundeak, dena den, dagokion akzio penala baliatu beharko du, edo egitateen berri eman Ministerio Fiskalari, delitu edo falta izan badaitezke.

Prozedura penala hasten bada, administrazio prozeduraren izapidetzea etenda geratuko da harik eta jurisdikzio horrek epaia eman arte. Dena den, ondasunak onik artatu eta leheneratuko dela bermatzeko, premiazkoak diren kautelazko neurriak hartu ahal izango dira.

**Azken xedapena**

Ordenantza hau, bada, bere testu osoa ALHAOn argitaratzen den unetik aurrera egongo da indarrean, behin igarotakoan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2. artikuluan ezarritako epea (lege horretako 70.2. artikulua artikulua horretara igorririk).

Gaubea, 2017ko martxoaren 7a

*Alkate-lehendakaria*

*JUAN CARLOS RAMÍREZ-ESCUDERO ISUSI*